

## Berri-berriak

### 2016ko ekintzarik nabarmenenak

**ULMA Architectural Solutions.** Euskara Batzordeko kideek formazioa jaso dute euren eguneroko lan-jardunean euskara kontzienteki eta ahal den guztietan erabiltzearen garrantziaz jabe daitezten eta gainerako lankideen aurrean euskararen arloan eredugarritasunez joka dezaten.

**ULMA Conveyor Components.** Eguneroko dokumentuetan eta langileen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko lanak egin dituzte.

**ULMA Construction.** EUSLAN Eusko Jaurlaritzaren programa pilotua aurrera eramán dute eta datorren urteari begira Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagirian parte hartzeko oinarriak ezarri dituzte.

**ULMA Handling Systems.** Langileen hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamika martxan jarri dute: lankideen hizkuntza portaerak identifikatzeko azterketa egin, emaitzak aurkeztu eta horietan eragiteko interbentzioak egiten hasi dira.

**ULMA Lazkao Forging.** Hizkuntza paisaian euskararen erabilera bermatzeko lanketa egin eta irizpideak zehaztu dituzte.

**ULMA Orga Jasotzaileak.** Hausnarketa baten ondoren, euskara plana berregituratzea erabaki dute. Aurrerantzean Zuzendaritza, Kontseilu Errektore eta Kontseilu Sozialeko ordezkariekin osatuko da Euskara Batzordea. Horrela, euskara plana instituzionalizatu nahi da.

**ULMA Packaging.** Termo lerroan paketatzeko makinetan softwarea euskaraz jarri dute eta hori beste lerroetara zabaltzeko asmoa dute.

**ULMA Piping.** Euskara Batzordea berritu eta euskararen presentzia areagotzeko pauso sendoak eman dituzte: sailletako helburuetan sakondu, barruko emailetan euskararen erabilera neurtu...

**ULMA Taldea.** ULMAko Negoziotei euskarazko zerbitzua bermatzeko plangintza aurrera eramán dute eta Euskara Motibazio taldeak eta ULMA Taldeko Fundazioak elkarlanean jardun dute urte osoko Bidegorriak Euskararentzat Egitasmoa aurrera eramateko.

### ULMA Embedded Solutionsen eta ULMA Constructionen Goiaingo delegazioan ere euskara plana martxan

#### | ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Euskara planaren diseinua egin da uztail-urri bitartean, Diseinu Taldeak gidatuta. Ildo beretik, ULMA Embedded Solutionsen, nagusiki euskaraz lan egiterainoko bidea egitea adostu du taldeak.



ULMA Embedded Solutionseko Euskara Batzordeko kideak

#### | ULMA CONSTRUCTIONEN GOIAINGO DELEGAZIOA

Delegazio osoko euskararen diagnostikoa egiten ari gara irailaz goerotik. Horretarako, Euskara Batzordea osatu da eta bere egiteko nagusia datozen urteetarako helburuak zehaztea izango da, beti ere, ULMA Constructioneko euskara egitasmoak aintzat hartuz (EUSLAN proiektua, Oñatiko misioa...).



Goiaingo delegazioko Euskara Batzordeko kideak

## Euskarazko IKT-eroen komunitateak urtebeteko ibilbidea egin du

Informazio eta Komunikazio Teknologietan (IKT) euskararen erabilera indartzeko helburuarekin sortu zen 2015ean ULMA n IKT-eroen komunitatea.

Bertan parte hartzen dute ULMAko Negozioetako informatikariek, eta, aurrez aurreko bilerez gain, Alfresco izeneko aplikazio birtuala erabiltzen dute praktikak trukatu eta helburu komunak aurrera eramateko.



IKT-eroak, 2016ko azaroko bileran

## Elkarrizketa



**Ahmed Benhamou ULMA Handling Systemseko lankidea da, SGA sailean moldatzaile lanak egiten ditu. Jatorriz marokoarra da eta berarekin elkartu gara bere bizitza eta euskararekin duen esperientzia ezagutzeko:**

### **| Noiz etorri zinen Euskal Herrira?**

*Orain dela 6 urte eta erdi etorri nintzen Euskal Herrira, zehazki Aretxabaletara.*

*Gu etorri aurretik aita jada hemen zegoen lanean. Gero, 14 urterekin, ama eta arrebarekin etorri nintzen Oujdatik (Maroko).*

*Familia elkartzeko etorri ginen hona, aitik hemen zuen lana eta gu, berriz, Marokon geunden. Egun batean hona etortzea erabaki genuen denok elkarrekin egon ahal izateko eta bitartean beste kultura bat ezagutzeko.*

### **| Nolakoa izan zen hemen jaso zenuten harrera? Nola gogoratzen duzu etorrera hori?**

*Oroitzapen onak ditut. Beldur apur bat neukan, dudak, nolakoa izango zen jendea, zelan pentsatuko zenuten.... Etorritakoan Almenera joan nintzen ikastera eta bertan*

*lagunak egin nituen eta dena oso ondo joan zen. Handik aurrera oso gustura egon naiz. Hasieran Aretxabaletara etorri ginen eta orain dela 3 urtetatik Arrasaten bizi naiz. Ondoren lanak Oñatira ekarri nau.*

### **| Nola ikasi zenuen euskaraz? Noiz sentitu zenuen euskara ikasteko beharra?**

*Almenen eta lagunekin ikasi nuen euskaraz. Etorri ginetik beti sentitu nuen euskara jakin beharra. Euskal Herrian geundenez normala zen euskara ikastea. Euskaltegira ere joan nintzen bolada batez, baina denbora gutxian. Orokorrean euskara Almenen eta lagunekin ikasi dudala esan dezaket.*

### **| Zure familiako kideek ikasi al dute?**

*Bai, badakite edo ahalegindu dira ikasten. Arreba Arrasaten dabil ikasten, 16 urte ditu. Ama ere ibili da ikasten, lehen denbora libre gehiago zuen eta euskaltegian ibili zen garai batean.*

### **| Gaur egun non erabiltzen duzu euskara?**

*Gaur egun euskara nire eguneroko bizitzan normaltasunez erabiltzen dut: kalean, lagunekin, lanean... ingurukoekin komunikatzeko hizkuntza da.*

### **| Zenbat hizkuntza dakizkizu?**

*4 hizkuntza dakizkit: arabiera, frantsesa, gaztelania, euskara eta ingelesa apur bat.*

*Nire jatorrizko hizkuntza arabiera da. Etxean beti hitz egin izan dugu. Orain batzuetan arrebarekin euskara erabiltzen dut eta gurasoekin gaztelania, baina etxeko hizkuntza ofiziala arabiera dela esan genezake.*

### **| Zer da euskara zuretzat gaur egun?**

*Euskara niretzat oso hizkuntza polita da, Euskal Herrian hitz egin eta erabili behar dena. Ni saiatuko naiz, ahal dudan guztietan, Euskal Herrian beti euskaraz hitz egiten.*